

BALIO PROPOSAMENA:

Gure enpresaren balioa handia izango da, hainbat erraztasun eskainiko baitie herritarrei. Lehenik eta behin kotxea seguru egongo da, lurrazpiko egitura batean egongo delako, eta ezin izango delako autora atzitu aplikazioak emandako kodea erabili gabe. Gainera, aparkalekua aurkitzeko erraztasun handia izango dute erabiltzaileek, lur azpian, lur gainean baino leku gehiago dagoelako. Bestalde, hiriaren erdian kokatuta egongo da.

Azkenik, ez dio zerbitzua erabili ezin duten erabiltzaileei eragingo, ez duelako espazio handirik hartuko gainazalean. Proiektu honek, berritasuna eman dio hiriaren egiturari, eta hainbat herritarri haien autoak seguru gordetzeko aukera emango die.

